

INGUMA

Jon Samaniego Arrieta, 17 urte
Pasai San Pedro

Goizero esnatzen naiz, ama,
zure eskubideak,
zure hitza,
eta borroka
nola aurrera eraman pentsatuz.
Isildu egin nahi zaituzte,
zure oinarria tirokatuz.
Mesprezatu egin zaituzte,
zure nortasuna ukatuz.
Semeak erail dizkizute,
beti ere bortxatuz.
Ama, zatitu egin zaituzte,
bai gorputz,
eta baita arimaz.
Hala ere,
ez dute lortu,

ez zuten lortu,
eta ez dute lortuko ez,
zure semeen nahia isiltzea.
Otso beltzak moztutako hegoak
guk berregingo dizkizugu,
askatasunerantz bidea
betirako zabalduz.

Zuoi, emakumeoi,
bizitzan aurrera
egiteko borrokatzen duzuenoi,
gizonek agindutako mundu honetan,
idazten dizkizuet
hitz xume hauek.
Azkenaldian ikusitako
emakume askoren
sumin eta tristurarekin
bukatzearren,
aireratu nahi dut
nire hitza,
behin betiko
buka daitezen,
zuenganako jipoiak,
eta aurrera egin dezazuen,
gizonen mundu zital honetan,
ezberdintasunik gabeko askatasunerantz.

Arimen usteltzea
somatzen dut,
mundu goibel honetan.
Bortxakeria eta berekoikeria

dira nagusi,
gizakiak zapaldutako lur honetan.
Gerra, dirua eta zapalkuntza
oinarri,
gizakiaren menpeko
eremu honetan.
Bakea urrun,
maitasuna urrun,
eta askatasuna
are urrunago.
Guzti honetan,
gizakiaren ongia
non dago?

Ohearen berotasunetik
idazten dizut,
goiz hartako,
maindire hotzen arteko,
musu eztiak ahaztu ezinik.
Egun hartako maitasun izpiak
piztutako kandela,
oheratu orduko
oroitzen du nire bihotzak
nire begi tristeei
distira emanaz.
Baina kandela,
argizaria berotzearekin,
pentsamenduekin,
urtuz eta itzaliz doa,
zure niganako maitasuna
Itzaliz doan bezala.

Ahaztuko al naiz egunen batean,
gau hartako hitzez?
Ahaztuko al naiz egunen batean,
goiz hartan piztu zenidan
maitasun argiaz?
Ahaztuko al naiz egunen batean,
zuk emandako musu eztiatz?
Ahaztuko al naiz egunen batean,
azkenaldian botatzen ditudan maalkoez?
Ahaztuko al naiz egunen batean,
zure begien distiratz?
Azken finean, ahaztuko al naiz,
zutatz?
Ala bizitza osoan,
gogoratu beharko zaitut nire bizia
galdu izan banu bezala?
Egia esan, ez dakit,
benetan, ez dakit,
baina zu oroitzean otutzen zaidan gauza bakarra,
maite zaitut da.